




4. URRATSA



4. URRATSA

AITA ZANARI

Manuel Olaizola *Uztapide*

EZKONTZEKO ASMOTAN

Plazida Otaño / Joxe Bernardo Otaño *Baria*

GALERIANOAREN KANTUAK

Martin Larralde *Bordaxuri*

MELES TERRAE

Jon Sarasua *Maritxalar*

KANTARI EUSKALDUNA

Joxe Mari Iparragirre

ZAHARTU DAN ANDREARI

Fernando Aire *Xalbador*

LO HADI AINGÜRIA

Pierre Bordazarre *Etxahun-Iruri*

DOLUAK DOLU

Maddalen Arzallus *Antia*

BIZIA TA HERIOTZA / HERIOTZA TA BIZIA

Leire Casamajou *Elkegarai*

NEKAZARRARI

Joxepa Antoni Aranberri *Xenpelar*

NORTEKO TREN-BIDEARI ASTE HONTAN TXIRRITAK JARRIYAK

Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*

GAZTETARZUNA

Aetz Etxart *Sarasola*

JARDIN BAT ZURETZAT

Xabier Lete Bergaretxe

HANKA PUNTTETAN

Rosi Lazkano

POTAJIARENA

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*

BILINTXEK HONDARRIBIKO JOXEPARI ETA HONEN ERANTZUNA

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* /

Maialen Lujanbio *Zugasti*

SEMEARI

Fernando Aire *Xalbador*

URSUS TIBETANUS

Aitor Sarasua *Maritxalar*

AMUNARI

Julio Soto *Ezkurdia*

ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

Fernando Aire *Xalbador*

NOLAKO MINA

Joanes Etxebarria

IZARREN HAUTSA

Xabier Lete Bergaretxe

ZALDI BATEN BIZITZA EDO ZALDI ZURIYARENA

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*

BETROIARENA

Joxepa Antoni Aranberri *Xenpelar*

ERROPA ZAHAR HOIEKIN

Jon Lopategi *Lauzirika*

MENDIAN GORA HARITZA

Xabier Amuriza *Zarraonaindia*

BI HAUR, ETXAHUNEN HIL HOBIAN

Roger Idiart



AITA ZANARI

Doinua: Ezagutu zuenak

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Manuel Olaizola Uztapide. 1976.

Sasoia joan da gero. Auspoa. 27 or.

Alfonso Irigoien
Artxiboa



Manuel Olaizola Uztapide
(1909 Endoia - 1983 Ergoien,
Gipuzkoa)

Uztapidek aitaz zuen oroitzapena, nekazari langile gogorrarena zen; larre motzean haziak ziren etxean!

Sortan, adi bertsoen lehen puntuei: badirudi Uztapide bere buruarekin puntutan ari dela...

Hala egin ote zuen sorta? Aldiro, bere buruari, lehen puntua jarritz?

- 1 Ezagutu zuenak gure aita **zana** beldurrik gabe egin izan zuen **lana** zortzi seme-alaba hazitzeko **zama** horregatikan hartu zuen **beregana**.
- 2 Zortzi seme-alaba ondo **hazitzeko** zerbait erakutsi ta haiek **hezitzeko** jatea derrigorra degu **bizitzeko** lana egin behar da hartan **luzitzeko**.
- 3 Bizi guzian jardun zuen **nekazari** ondo begiratuaz etxeko **gauzari** behin hasitzen danian bat lan **eskasari** inoiz ez du jasoko behar hainbat **sari**.
- 4 Lurreko lanak dira oso **penosuak***: askotan pasa zitun hark egun **osuak** ederki nekatuta beraren **besuak** iluntzean ez ziran izango **gozuak**.
- 5 Hazitzeko hainbeste eman zuten **jaten** eskolara're ginan batzuetan **juaten** zortzi seme-alaba errez da **esaten** hazitzia ez da hain erraza **izaten**.
- 6 Hamasei bat orduko eguna **lanian** zer poza egun hura bukatzen **zanian**! Beti ez zan izango umore **onian** pakian utzi behar hala **zegonian**.



penosuak = dorpeak





7 Ganadu* mordoska bat
ikuilu **zaharrian**
batzuetan ibiltzen
ginuzen **larrian**
gogotik saiatutzen
ziran **belarrian**
ile puska bat bazan
haien **bizkarrian**.

8 Hoiez gainera berriz
mendian **ardiak**
baziraden behorak
baziran **zaldiak**
han ere egin behar
ibili-aldiak
bertan gelditzen ziran
bestela **erdiak**.

9 Gizona izan arren
zintzua ta **fin**a
halare bazeguen
nahiko **zeregina**
gero bazan gurekin
zeini **eragina**
gure aitag ordutan
a zer **atsegina**!

10 Gustatuagatikan
lagunen **artian**
zintzo jokatu behar
hogeia bat **urtian**
gu sortu ginanetik
haunditu **artian**
zenbat sufrituko zun
bien **bitartian**!

11 Guk pasatu ginuzen
gure **estusunak**
haundiaguak, aita,
pasa **dituzunak**
oso urriak ziran
ginun **ondasunak**
eskerrak lagundutzen
zigun **osasunak**.

12 Aita gizarajua
han dago **zeruan**
gu noiz juango ote
geran **esperuan**
ez du egon beharrik
oso **luzaruan**
laster ikusiko det
zer berri **daguan**.





EZKONTZEKO ASMOTAN

Doinua: Ezagutu zuenak

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.

Pedro M. Otaño eta bere ingurua I. Auspoa. 91 or.



Plazida Otaño (1867 - 1954
Zizurkil, Gipuzkoa)

Joxe Bernardo Otaño Baria
(1842 - 1912 Zizurkil,
Gipuzkoa)

Plazidak 18 urte zituela, jai bazkalondo batez, etxeko sukaldean bertsoan ari ziren aita-alabak. Plazidak aitari bertso batean esan zion, adinez aurrera zihoala eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dotea prestatzen hasteko. Dotea zen ezkonberriari gurasoek ematen zioten ondasuna. Eta hauxe aitaren erantzuna eta alabaren errespuesta.

Joxe Bernardo

Ezkondu behar denala
hoi den **baloria!**
Hemezortzi urte den
hire **edadia**.
Pikara*, gaizki hazi
lotsarik **gabia**
hik aberastuko naun
lehen banaiz **pobria**.

Plazida

Aita, zahartu ta gero
garai hobia **ez da**
neska gaztiak ere
badu bere **kezka**.
Ilea zuriturik
nobiorik* **ez-ta**
orduan alperrik da
soinua ta **festa**.



Pikara = Kokina

nobiorik = senargairik



GALERIANOAREN KANTUAK

Doinua: Lili bat ikusi dut / Urzo xuri pollit bat B
Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)
Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza



Martin Larralde Bordaxuri
(1782 Hazparne, Lapurdi -
1821 Rochefort, Frantzia)

Sorta hau Martin Larralde 1815ean utzitako azken testigantza da, Paueko presondegian sartu zutenean, bizi guztirako galeretara kondenatu zutela jakitun. Bere egia bertsotan jarri nahi izan zuen, sortan dionez, helburu oso argiekin: "(...) Orok kanta ditzaten Hazparne herrian / (...) Eta portikulazki aita, zureta / kantu hok aditzean semiaz oroitzeko."

Izan ere aita berak salatu zuen Martin: Plumagainen baserriaren oinordetzagatik liskarretan zebiltzan, eta euren lur sailean gertatu zen hilketak misterioitsu baten errua semearekin bota zion aita. Nonbait, aita euren baserriko lur sailak mozteko baimena eman zion herriko gizon bati, eta hau belarretan ari zela tiroz hil zuen norbaitek... Baina nork? Ez zen ba aita bera izango...?

Hilketagatik Pauen epaitu zuten Martin Larralde. Epaietan hainbat lekuko izan ziren, denak euskaldunak, frantsesek fitsik ez zekitenak, eta zuberotar batek itzultzaile lanak egin behar izan zituen, baita frantseseko agiri guztiak idatzi ere. Epaiak galeretara kondenatu zuten bizitza osorako; zazpi epaile agertu ziren kondenatzearen alde eta bost aurka.

1816an, 35 urte zituela eraman zuten Rochefort hiriko galeretara; galerak beladun itsasontzi handiak ziren eta bertan arraunean ari behar izaten zuten presoek, atsedetik gabe. Lan behartu horietan aritu zen, 1821ean, 40 urterekin, Rocheforteko itsasgizonen eritegian hil zen arte.

"Galerianoaren kantua" ezagun egin zuten Pantxoa eta Peio abeslariak (1969).

Martin Larralderi kantu ezaguna eskainia dio Ruper Ordorika abeslariak, Joseba Sarrionandia idazlearen hitzekin.

1 Mila zortziehun ta hamabortz **garrena**
ni Ahazparden preso hartu **nindutena**
Plumagaineko premu* orok **dakitena**
galeretan higatu beharko **naizena**.

2 Kantatzera nihazu alegera **gabe**
ez baitut probetxurik trixtaturik **ere**
nehun deusik ebatsi*, gizonik hil **gabe**
sekulakotz galerak enetako **dire**.





- 3 Ala zorigaitzeko premu **izaitea!**
Harrek eman baiteraut betikotz **kaltea**
aitari galdeginik sortzeko **partea***
galeretan eman nau, hauxe duk **dotea***!
- 4 Ene aita da gizon **kontsideratua**
semia galeretan du **segurtatua**
nun-nahi otoitzean **belaunikatua**
saindu iduri debru **madarikatua!**
- 5 Ene lehen kusia*, Cadet, **Bordaxuri**
fagore bat banuke galdatzeko **zuri**
ongi adreza* zaite ene **arrebari**
ene saltzeko zonbat ukan duen **sari?**
- 6 Aita aitzinean* ta arreba **ondoko**
osaba burjes hori diru **fornitzeko***
ez, ordian enetzat bi sei **liberako***
galeretan bederen leher **egiteko!**
- 7 Elizan sartzen dire **debozionerekin***
iduriz badohazila saindu **guziekin**
beren liburu eta **arrosarioekin***
debruak pesta onik einen du **heiekin.**
- 8 Zortzigarren bertsua **aneiarendako**
kontseilu bat banikek hiri **emaiteko**
ontsa* goberna hadi, etzauk **dolutuko***
ni baitan* etsenplua errex duk **hartzeko.**
- 9 Zuri mintzo nitzaizu, oi, aita **zilarra***!
Ardura* dudalarik begian **nigarra**
zure eta ene arraza **Bordaxuritarra**
galeretan naizeno ni bainaiz **bakarra.**
- 10 Kantu hauk eman ditut Paueko **hirian**
burdinez kargaturik, oi! **presondegian**
bai eta kopiatu denbora **berian**
orok kanta ditzaten Azparne **herrian.**
- 11 Hok eman izan ditut, ez **xangrinatzeko***
ahaide*, adixkidek, kuraie* **hartzeko**
eta portikulazki aita, **zuretako**
kantu hok aditzean semiaz **oroitzeko.**



partea = jaiotzatik zegokion partea
dotea = ondorengoei ematen zaien ondasuna
lehen kusia = lehengusua
adreza = zuzendu
aitzinean = aurrean
fornitzeko = biltzeko, jasotzeko
liberako = garaiko dirua zen libera
debozionerekin = debozioarekin, Jainkoarekiko miresmenez

arrosarioekin = errezorako lepokoa, otoitzak kontatzeko aleduna
ontsa = ongi
etzauk dolutuko = ez zaik damutuko
ni baitan = nire baitan, nigan
zilarra = dirdiratsua
Ardura = Sarri, etengabe
xangrinatzeko = disgustatzeko, sufritzeko
ahaide = senide
kuraie = kuraia, adorea





Jon Sarasua Maritxalar
(1966 Aretxabaleta,
Gipuzkoa)

MELES TERRAE

Doinua: Urzo xuri pollit bat A

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

“Fauna txiki bat bertso berritan” diskoa (1995 Elkar) atera zuten Jon eta Aitor Sarasua anaiek, bertso musikatuekin. Gizabere espezie bakoitza animalia batekin konparatzen zuten kantuetan. Sorta hau nekazariari eskainia da: lurra maite duen azkonar jende horri.

- 1 Argira sortu nintzen
beldurti **herabe***
gorputza daukat orain
bihotzaren **labe**.
Maite bat maitatzen dut
baina haren **jabe**
sekula izateko
desiorik **gabe**.
- 2 Zuloa egina dut
bere **bihotzean**
abaro* aberatsa
gauaren **hotzean**.
Zirrara bat somatu
ohi dut **ibiltzean**
berak laztantzen bainau
pauso **bakoitzean**.
- 3 Goizez deskubrimendu
gauez **misterio**
egunaren betean
bizitza **jario**
arratsaren gorrian
dena **amodio**
neuretxoari ere
bide eman **dio**.
- 4 Garbi bezain izkutu
eta **mugagabe**
nerau berriz ez izan
aztarkari **trebe**
behatu nuenean
desiorik **gabe**
egin ninduen bere
sekretuen **jabe**.
- 5 Somatu nionean
emankortasuna
mirespenean jarri
nuen **erantzuna**
doia eta isila
barne **oihartzuna**
bizimodu egin zen
nere **maitasuna**.
- 6 Azkonarren arima
jaso dut **opari**
geroztik pixkanaka
maite-pozten **ari**.
Galdezka ibiltzen naiz
honi eta **hari**
nik adina esker on
dioten **lurrari**.
- 7 Arruntasuna gozo
gozamina **arrant**
egunero urlotik
lasai dagit **txurrut**.
Lurrarekiko poza
barneratu **baitut**
zu ere horrelaxe
maitatu nahi **zaitut**.



herabe = lotsati

abaro = babesleku





Joxe Mari Iparragirre
(1820 Urretxu - 1881 Itxaso,
Gipuzkoa)

KANTARI EUSKALDUNA

Doinua: Gitarra zahartxo bat det

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza

Kantu honetan Iparragirrek azaltzen du nola dabilen munduan barna, artista bizimoduan, gitarraz kantari.

Lehen Gerrate Karlista hasi zenean, 14 urterekin, soldadu sartu zen batailo karlistan. Gerran hasi zen Iparragirre gitarra jotzen, kantuan eta bertsotan. Gerran bere gitarra zahartxoak eta kantu politikoez estatuetatik kanporatu zuten birritan: Frantzian 1848. urteko iraultzan parte hartu zuen eta, agidanez, barrikadetan "La Marseillaise" ereserkia kantatzeagatik, Napoleon III.aren gobernuak Frantziako lurraldetik kanpo ezarri zuen, arriskutsua zela-eta. Espainian 1855ean gobernari liberalek estatutik kanporatu zuten, bere jarduna arriskutsua zela iritzita.

Munduan barrena ibili izan zen bere bizialdi guztian: Madrilen, Frantzian, Suitzan, Italian, Alemanian, Londresen eta Ameriketara izan zen. Buenos Airesen (Argentinan) bizi izan zen urtetan, han ezagutu zuen andre gipuzkoar batekin ezkontuta.

1878an itzuli zen Euskal Herrira. Omenaldi asko egin zituzten arren, guztiz pobre bizi izan zen hil arte. Kantu honetan islatu zituen desira guztiak bete zituen halere.

"Gernikako Arbola" euskal ereserkia Iparragirrek eginga da, 1853an; badu "Gitarra zahartxo bat det" doinuaren traza.

1 Gitarra zahartxo bat da
nerezat **laguna**
honela ibiltzen da
artista **euskalduna**.
Egun batean pobre
beste batez **Jauna**
kantari pasatzen det
nik beti **eguna**.

2 Nahiz dela Italia
orobat* **Frantzia**
bitan bilatu det
anitz **malizia**...
Ikusten badet ere
nik mundu **guzia**
beti maitatuko det
Euskal Herria!

3 Jaunak ematen badit
neri **osasuna**
izango det oraindik
andregai bat **ona**
hemen badet frantzes
interesa **duna**...
Baina nik nahiago det
hutsik **euskalduna**.

4 Agur Euskal Herria
baina ez **betiko**
bost edo sei urtean
ez det **ikusiko**...
Jaunari eskatzen det
grazia **emateko**
nere lur maite hontan
bizia **uzteko**.



orobat = era berean





ZAHARTU DAN ANDREARI

Doinua: Gitarra zahartxo bat det

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Fernando Aire Xalbador. 1976/2004.

Odolaren mintzoa. Auspoa. 301 or.



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976)
Urepele, Baxenabarre)

1972an, Donostian, gai hau jarri zioten Xalbadorri:
zergatik maite duzu, zahartu den zure bizi-laguna, zure emaztea?


- 1 Andrea ez dut nik hartu gero **menturan***
neguaz pentsa gabe maitatu dut **udan**
bainan oraintxe jartzen ari naiz ni **dudan**
gero ta maiteago zergatik **zaitudan**.
- 2 Zure egina nauzu muina ta **hezurra**
hola pasako zela banuen **beldurra**:
oraino're zurekin ni beti **gostura**
zutan kusi* nuena ez baitzen **gezurra**.
- 3 Iguzki egina da zu zaren **itzala**
luzaro elgarrekin gaitezke, **oxala!**
Ikusten dut beti ta hobe **zoazala**
armairu xokoan dan ardoa **bezala**.



menturan = esperantzan

kusi = ikusi





Pierre Bordazarre
Etxahun-Iruri
(1908 Iruri, Zuberoa -
1979 Pau, Frantzia)

LO HADI AINGÜRIA

Doinua: Lo adi ainguria

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza

Sehaska kanta honetan ama entzuten dugu, haurra loharrazten: bere aingerua. Kanpoan gau giro beldurgarria egiten du eta aita itsasoan da. Ama izututa dago, aita ez ote den itzuliko.

Kantua ezagun egin da Maddi Oihenarten ahotsean, hainbat diskotan.


- 1 Lo hadi ainguria amaren **altzuan**
hire erri eijerra* botz* ezpain **xokuan**
axolbian* gutuk bainan ni trixtura **goguan**
hau gaitza duk kanpuan ta aita **itsasuan**.
- 2 Beha zak aize beltza mehatxukaz **ari**
zer gaialdi* luzia, zuinen **etsigarri**
harriturik ikara niz lotu **kurutxiari***
otoitzez jinkuari egin dezan **argi**.
- 3 Lo hadi lo maitia ez egin **nigarrik**
zeren nihaur* aski nuk heben **dolugarri***
egik zeluko aingurier* erri batez **batzarri***
pentsa dezen aitari jin* dakigun **sarri***.



erri eijerra = irri ederra
botz = poz
axolbian = axolagabean
gaialdi = gavaldi
kurutxiari = gurutzeari
nihaur = ni neu

heben dolugarri = hemen errukarri
zeluko aingurier = zeruko
aingeruekin
batzarri = harrera
jin = etorri
sarri = geroago





Maddalen Arzallus Antia
(1990 Hendaia, Lapurdi)

DOLUAK DOLU

Doinua: Beste bateko inularretan

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)

- 1 Bizitza hain da eskuzabala, hain ditu altxor **anitzak**...
Ematen ditu amets ederrak eta leku **sinesgaitzak**,
esperientziak eta pertsonak gure arimen **zurkaitzak***...
Bainan* emanen dizun guzia kenduko dizu **bizitzak**. (bis)
- 2 Aldatzen dira gure harremanak, joaten dira **lagunak**
eta ez gara bihozgabeak edo **ahalguzidunak**;
dolu ttikiak bizi ditugu sakonak eta **ilunak**,
bakoitzak gure denborarekin gaingaituko **ditugunak**. (bis)
- 3 Aldatzen dira bizilekuak, hondatzen dira **ametsak**,
eraikitako zimendu batzu jotzen ditu azken **beltzak**.
Aldaketa bat zaila da bainan garapen bide da, **behintzat**...
Heriotzaren hostasun bera du aldaketarik **ezak**. (bis)
- 4 Oroitzapenen zurrumbiloan gure minari **lotzean**,
doluak ere goxotasuna badu bere **bihotzean**.
Bainan ez ahantz ematen duzun urrats ttiki **bakoitzean**,
bizitza beti aurrean dela eta zilo* bat **atzean**. (bis)
- 5 Zilo horretan eror zaitezke bainan ez zaitela **kezka**,
zure baitarik ezin baduzu, hasi laguntza **galdezka**.
Doluak dolu eta minak min bizitza beti da **festa**,
sufirimendua maitasunaren miraila* bat baizik **ez da**. (bis)



zurkaitzak = euskarriak, sostenguak
zilo = zulo

miraila = ispilu





BIZIA TA HERIOTZA / HERIOTZA TA BIZIA

Doinua: Bizia sortzen, hazten, garbitzen

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Leire Casamajou Elkegarai
(2002 Sohüta, Xiberoa)

- 1 Abio* bakotxak beitü etena gure bizitzeak **ere**
destino horren menpe ez denik ez da ezagüt **batere**
eta etena borrokatzen da nahiz jakinik **halere**
hastetik бүрү bizi oroen herioak düala **botere**
- 2 Gogo günöke salborik elki* gure bizi **istorioaz**
alta* kordoka* ari den orekan urteak aitzina **doaz**
ohartü ümen gira beranxka gaüzek züen **balioaz**
eskasiatik hazi inbeaz* mentsetik* sortü **gogoaz**.
- 3 Zonbaitentako hain llabür eta hain lüze **besteentako**
batak besteari inbea deio* ez beitü haren **gisako**
ederra dena hain eder ote lizatea **denentako?**
Iraünen balü infinitüan ez günüküan hain **gustüko**
- 4 Nahiz lotsatü*, nahiz beldürtü nahiz gaüetan **iratzarri**
nahiz nigarrak, nahiz ikarak, nahiz zaigün **harrigarri**
biez bat edo batez bi dira txori biga, bakotx **harri**
herioa da egiten düana bizitzea **bizigarri**.



Abio = abiatze, partitze
elki = irten
alta = baina aldiz
kordoka = kolokan, mugitzen

inbeaz = gogoz
mentsetik = faltatik, gabeziatik
inbea deio = gogoa dio
lotsatü = beldurtu





Joxepa Antoni Aranberri
Xenpelar (1865-1943
Errenteria, Gipuzkoa)

NESKAZARRARI

Doinua: Eguna pasa nekean eta
Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)
Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.
Xenpelar eta bere ingurua. Auspoa. 563 or.

Ibaizabal astekariak sariketa bat antolatu zuen, gaitzat “neskazaharrak” emanda. Enrique Elizetxeak irabazi zuen, emakumeei buruz handiak esanda. Bere hitzekin mindu egin ziren emakume asko; gainera, Enriquek gaixoaldia izan zuenean emakume ezkongabeek zaindu zuten. Bere familiako ostatuan, Bizenta etxezaina ere, ezkongabea zen.

Haserrearen haserrez, inguruko emakumeek bertsotan erantzuteko eskatu zioten Joxepa Antoniri, eta hala idatzi zuen sorta hau. Enriqueri bidali zion sorta eta honek Ibaizabal astekarira zuzendu zuen. 1902ko maiatzaren 11an argitaratu zen.

1 Ez nuen bada pentsamenturik
zuri bertsuak **jartzeko**
baina lagunak esan didate
isilik ez **egoteko**
motiborikan ez degu eman
zu horrela **mintzatzeko**
ez diran gauzak esan dituzu
dina da **minberatzeko**.

2 Ibaizabalen sari txiki bat
irabazteagatikan
gogora etorri zaizun guztia
esan dezu **gugatikan**
nik esan behar banu munduan
zaude gaur **guregatikan**
zu sendatzeko sendagarriarik
ez zan inungo **botikan**.





3 Zenbait alditan zu sendatzeko egin ditugu **errezuak** pena haundia ematen zigun emazte eta **gurasuak** zeinek pentsatu zuk gure kontra hola jartzia **bertsuak**? Ez gera bada zuk uste dezun bezain **inbidiosuak**.

4 Gu ernegatzen bizi gerala senargairikan **ez-eta** nere lagunaren artean behintzat horrelakorikan **ez da** neri sinisten ez badidazu etxian hasi **galdezka** nik baino hobeto emango dizu Bizentak(*) **errespuesta**.

(*) Enriqueren familiako ostatuan etxezaina zen Bizenta, hura ere ezkongabea.

5 Neskazarraren izenak denak dituela **ikaratzen** horien jabe egin ezkerro egongo dela **erretzen** zerbait dutenak* izanagatik ez hasteko hoiek **hartzen**... Guretzat beste disparaterik ez al zaizu **gogoratzen**?

6 Edadetxoko nere lagunak nahi nituen **anparatu** horiei gusto emateagatik dizut ordainak **bueltatu** nahi badituzu Ibaizabalen hoiek ere **kopiatu** eta saririk ematen badu gutaz ere **akordatu**.



zerbait dutenak = diru pixka bat dutenak





NORTEKO TREN-BIDEARI ASTE HONTAN TXIRRITAK JARRIYAK


Doinua: Naparruatik ardo karraio A

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)

Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1992. Txirrita.

Jose Manuel Lujanbio Retegi (1860- 1936).

Bizitza eta bertsoak. Auspoa. 468 or.



Jose Manuel Lujanbio
Txirrita (1860 Ereñotzu -
1936 Altza, Gipuzkoa)

1864an inauguratu zen Donostian Norteko Trenbidea. Aurrerapen handia izan zen baina, hasiera hartan ur lurrunezko lokomotora izaki, bere arazoak ere bazituen: “ikatz-jale” ikaragarria zen, nekez igotzen zituen aldapak eta botatzen zuen ke beltza bagoietan sartzen zen.

Horregatik, trenbidean argindarra sartzeak benetako iraultza ekarri zuen. 1929an gertatu zen.

1931ko sorta honetan Txirritak asmatu zuen azaltzen zer aldaketa ekarri zuen trenak eta zer alde dagoen makina ur lurrenak edo argindarrak mugitu.

- 1 Naparruatik ardo-karraio itzai* asko zan **ikusi** prankok bazauzkan hiri koskorak beren koilare ta **guzi** zurezko ardatzak lumerarekin* ahal zan maizena **igurtzi** denbora hartan Pantorrill zuten karreteruen **nagusi**.
- 2 Garai artako itzai koskorak ongi zebiltzan **lanian** Gipuzkuan da Bizkai aldian da Euskal Herri **danian** gorputzak bapo gobernatuaz edanian da **janian** akabo hoi en jornal-bidia trena etorri **zanian**.
- 3 Aditu zituztenian trenen txistua eta **marruak** gehientsuenak saldu zituzten idiak eta **karruak** esanaz: “Horrek jetsiko dizkik goi hoitan diran **arduak**”. Garai hartako haien abarkak ziran basurde-**larruak**.
- 4 Mila zortziehun hirurogeita zazpigarrengo **urtian** lehenengo trena ikusi nuen Espāniako **partian** bide pixka bat bistan pasa ta inoiz sartua **lurpian** ferra* berriak erantsi dizte handikan orain **artian**.



itzai = itzaina, idi zaina
lumerarekin = arrain-koipearekin

ferra = burdinazko arku, ganaduari apatxetan jartzen zaiona





- 5 Modu horretan jarri zuenak Norteko **ferrokarrila** jakinduria haundia zuen entendimentu **abila** gizonik ezin hasi liteke zaldi hobiaren **bila**: goizian irten Irundik eta iluntzerako **Madrila**.
- 6 Danak alkarri lagun zaiozun ilundu gabe **kopetik** indar haundian dijuala're gelditutzen da **kolpetik** inor ezertaz bihartzen bada Donostiara **Madritik** izugarritzko adelantua jarria dago **Nortetik**.
- 7 Linea horrek badauka zenbait tunel, zubi ta **errio** bi biderekin ipini dute sekulan baino **berrio** eletrikako indarra eta hoinbeste **guardarraio** gau eta egun gelditu gabe beti zerbaiten **karraio**.
- 8 Trenera lasai baliyuake eginagatik **zahartzera** iyo-bidiak ederrak dauzka kotxian aixa **sartze'a** hamar legua bide pasa ta ordu beteko **etxera** lehengo segunda bezain ederra dago oraingo **terzera**.
- 9 Eseri-aulki ederrak eta beste gauza bat on-**ona**: ezertarako bihartzen bada kotxe bakoitzak **komona** lehenguan hantxen ikusi nuen larogei urteko **amona**, frantzes euskaldun buru-zuri bat, Bentaberriko **Moñoña**.
- 10 Karbonerarik* ez dute bihar fogonerorik* hain **gutxi** hor bihar dana: begiak ernai eta llabiari* **eutsi** abiatzian iriki eta ailegatutzian **itxi** gau eta egun gelditu gabe dabil txistu ta **irrintzi**.



Karbonerarik = Ikaztegririk, ikatza gordetzeko tokirik

fogonerorik = suginik, sua zaintzen duenik
llabiari = giltzari






11 Gizon abila zan eletrika
sortu zuen maisu **hori**
pixka-pixka bat harek graduak
bajatu zizkan **suari**
orain indarra leku askotan
kendutzen zaio **urari***
garai batian merke zan baino
gaur balio du **ugari**.

12 Hola esanaz ur irakinak
egiten zuen **negarra**:
“Prezisua al da beti kalderan
kiskaltzen egon **biharra**?
Ez daukat beste alimenturik:
sua, kia ta **txingarra**
ongi miatzen baldin banazu
hotzian badet **indarra**».

13 Berari beira jarri zitzaion
zabaldurikan **besuak**
arrazoi hori ontzat hartu du
eletrikako **maisua**:
“Badakit zure gau ta egunak
dirala **lastimosuak**
hori egia esan badezu
itzaliko dia **suak**”.

14 Nere munduko jakinduria
izan da oso **azala**
Jangoikuari eskatzen diot
arren argitu **nazala**
garai batian ez genekien
eletrikarik **bazala**
orain ur hotzak dabilki trena
lehen irakinak **bezala**.



urari = argindarra urarekin egiten da






GAZTETARZÜNA

Doinua: Aberastarzün izigarria

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Aetz Etxart Sarasola
(2004 Urdiñarbe, Xiberoa)


- 1 18 urte beterik egün aintzinean* hainbat mündü **berri** emozioneen gora beherak zonbat nigar eta **erri*** ezagütza eta sentsazio ezezagünez **egarri** adin hori beita oroentako libertatearen **ütürri**.*
- 2 Autoarekin bidetan gainti üdüri giren **imortala** etxea non güni ahatzerik* bizi nomadak **bezala** aitamekilan kexaldi franko beti ezin konpont **behala*** bena oroekin onsa joaiteko egitez egin **ahala**.
- 3 Nolakoa niz, ni nor ote niz zer da ene **eginkizüna** pentsa ta pentsa бүрүан үнгүрүка* galto oroen **oihartzüna** ohartü arte ez dela beti bizia **koloredüna** zonbaitetan zelüa urdina bestetan gaüa **ülüna**.
- 4 Bakotxak atzamaiten beitügü gütan zerbait **berezia** ahatze* gabe nuntik jin giren ta zer dügün **ikasia** ohartü arte entzün behar dela gure barne **poesia** ahal bezain irus izatez beti llabürra beita **bizia**!



aintzinean = aurrean
erri = irri
ütürri = iturri

etxea non güni ahatzerik = etxea non genuen
ahantzirik
behala = berehala
üngürüka = inguruka, itzulika
ahatze = ahantzi





Xabier Lete Bergaretxe
(1944 Oiartzun -
2010 Urnieta, Gipuzkoa)

JARDIN BAT ZURETZAT

Doinua: Hemen zizurkildar bat

Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)

Xabier Letek azken kontzertua 1999an eman zuen eta han plazaratu eta grabatu zuen kantu hau, bere emazteari eskainiz. Lourdes Iriondo izan zuen bizitzan bidelagun, gaztetan abeslaria eta Ez Dok Amairu kultur mugimenduko kide izana, garaiko abeslari gazteekin batera (Xabier Lete, Mikel Laboa, Benito Lertxundi...).

- 1 Egunak eta gauak
uda ta **neguak**
etsipen ilunenak
zorion **orduak**
bizitzaren zauriak
helburu **galduak**
laztanik xamurrenak
bide **erratuak**
elkarren babesean
igarotakuak.
- 2 Egunsentiko ihintza
goizeko **loreak**
itsasoaren hatsa
eta **koloreak**
urruneko hiriak
lurralde **hobeak**
musika eder baten
azken **akordeak**
maitasunezko hitzak
barruan **gordeak**.
- 3 Eskutikan hartuta
amilduak **gera**
erreka bat bezela
menditikan **behera**
oinazea geurea
geurea **plazera**
itzal bihurtuko naiz
zu galtzen **bazera**
itzalaren itzala
ezereza **bera**.
- 4 Mugarik gogorrena
noizbait hil **beharra**
igaro eta gero
munduko **zeharra**
mendabeltxen usaia
zure **irrifarra**
betiko gozatzea
nere **ametsa da**
zeruko jardinetan
zerurikan **bada**.






HANKA PUNTTETAN

Doinua: Gogoratuko zara

Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)



Rosi Lazkano
(1958 Aia, Gipuzkoa)

2016ko Bertso Egunean Donostian abestutako sorta.

Hautzarotik gaur arteraino, bizitzako pauso txiki-handiei.

- 1** Zaharrak berri dion
haritik **tiraka**
gogo bereala
doa **pirrilaka***
nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak **tapa**
irripar bat sortzeko
ahalmena **dauka**
nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak tapa
bizi-bizirik dago
aitzen det **tik-taka**.
- 2** Nere lehen ipuina
zan kristau **dotrina**
ixilik egon behar
hizkuntz asko **baina**
etxekoak euskeraz
mezetan **latina**
Santa Anako monjak
gaztelera **fin**a
etxekoak euskeraz
mezetan latina
eta nexkak eraman
behar **mantelina***.
- 3** Txarolezko zapatak
galtzetin* **txuriak**
neska txiki harentzat
momentu **haundiak**
egun berezietan
janzteko **jantziak**
ahizpa zaharrago batzuk
aurrez **erantziak**
egun berezietan
janzteko jantziak
begiratuta garbi
neuzkan **belarriak**.



pirrilaka = pirripitaka, bueltaka
amiltzen

mantelina = mezetarako buruko
oihala, beloa
galtzetin = galtzerdi





4 Astelehen goiza beste
denen **desberdina**
sukaldia betian
erropa **zikina**
goiz osoan burrundan
jaboi ur **makina**
lehenengo maindirea*
gero galtza **urdina**
goiz osoan burrundan
jaboi ur makina
automatikua zan
amaren **ezina**.

5 Nerabetzan ez katxi
eta ez **zurito**
nere beldur guztiak
izerditan **ito**
hanka-punttetan dantzan
bi ordu ta **piko**
abiapuntu txarra
ez zan **nerekiko**
hanka-punttetan dantzan
bi ordu ta piko
“faborez?” baten hasi
ta lotu **betiko**.

6 Etxerako bidean
argitik **ezkutu**
lehen muxua... bueno
ezpainak **ikutu**
barrun dena algaraz
kanpon dena **mutu**
segundoa bihurtu
zitzaidan **minutu**
barrun dena algaraz
kanpon dena mutu
pekatua zan baino
ez nintzan **damutu**.

7 Orain dirudigula
katu eta **xagu**
zulotxoan sartzeko
ez nabil hain **malgu**
oilo-ipurdin jartzia
hori ez det **galdu**
desio berriren bat
beti zait **azaldu**
oilo-ipurdin jartzia
hori ez det galdu
eta grano zein agne
itxusitik **salbu**.

8 Hazitarako inor
izango ez **geranez**
holako aukerei
ez diet “**orain ez**”
seguru segiko det
tabarra **emanez**
gustatzen zaidan hura
gustora **eginez**
seguru segiko det
tabarra emanez
lehen hanka punttetan
eta orain **oinez**.





POTAJIARENA

Doinua: Egunaren izena

Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.

Bilintx – bertsoak eta bizitza. Auspoa. 195 or.



Indalezio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876
Donostia, Gipuzkoa)

Oiartzunen (Gipuzkoan) pilota partida bat ikusi ostean, ostatura sartu zen Bilintx, bazkaltzera. Eta mahaian apaiza egokitu. Garbantz (edo potaje) platerkada handiak jan zituen hark, Bilintx goseak utziz.

- 1 Egunaren izena ez dakit nola **zan** baino seinalagarri partidu bat **bazan** pelotan jokatzeko Oiartzungo **plazan** nahi det nere orduko gertaera **esan** hurrenguan beste bat eskarmenta* **dezan**.
- 2 Partidua jokatzek bukatu **zanian** ostatura juan nintzan zuzen-**zuzenian** mahaiera jana ekartzen hasi **ziranian** apaiz bat serbitzen zan aurren-**aurrenian** makina bat sartu zan haren **barrenian**.
- 3 Zintzur ona zuela klaro **sinaliak** eman zituen apaiz barbantz **zaliak** dozenaka tragatzen zituen **aliak** maskatu ere gabe tripazai* **jaliak** halako aisa nola antxua **baliak**.
- 4 Tragatutzen zituen igar da **heziak** ez ziran haren dina* zetozen **klasiak** ekarri orduko zeuzkan tripara **pasiak** kortesia gabeko txapela **luziak** harek nahikua jan ta ni berriz **gosiak**.
- 5 Nere ditxa* guziak badute **ajia** noski naiz Jaungoikoak ahaztutzat **lajia*** gosiak egin nuen hango **biajia** kulpa duenarentzat daukat **korajia*** apaiz batek jan zuen nere **potajia**.
- 6 Geroztik ostatuan sartu **ordurako** galdia egin gabe ez det nik **lajako**: egun hartan apaizik ote dan **harako** ez apaiz jaun guziak igual **diralako** baizik batek bildurra sartu **ziralako**.



eskarmenta = irakaspeta hartu
tripazai = tripazain, tripontzi, sabelkoi
ez ziran haren dina =
ez ziren harentzako beste

ditxa = zorion, zorte
lajia = lagatakoa, utzitakoa
korajia = kuraia, ausardia





BILINTXEK HONDARRIBIKO JOXEPARI ETA HONEN ERANTZUNA



Maialen Lujanbio Zugasti
(1976 Hernani, Gipuzkoa)

Indalecio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876
Donostia, Gipuzkoa)

Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Hondarribiko Joxepa bertsolariaz dakigun apurra, Bilintxek jarritako sorta honen bidez iritsi zaigu: "Hondarribi aldian aditzen genduen/ dama bertsolari bat nola bazeguen/ zeinak Euskal Herrian parerik ez zuen".

Ikerlanetan jasota dagoenez, Lore Jokoetan "Hondarribitar neska bat" ausartzen zen gizonekin lehiatzera; garaia egatik, Joxepa bera izan daiteke. Lore Jokoetan ez omen zen batere arrunta andere bertsolariak aurkitzea. Oholtzan bakanak izanagatik, lehiak irabaztera iritsi ziren Azkaingo Maria Luixa Erdozio (1869an eta 1875ean), Ezpeletako Mariana Hargain (1888an eta 1895ean) eta Lekorneko Aña Etxegarai (1894an).

Joxeparen fama hots haiek egia ote ziren jakin nahian, Donostiako dozena bat lagun Hondarribiara hurbildu zen, tartean Bilintx bera. Bilintxek bertsotan neurtu nahi zuen Joxeparekin baina, antza denez, Joxepak ez zion jokoa segi. Joxepari ez omen zitzaion iruditu Bilintx bertsolaria zenik ere (edo hori da Bilintxen belarrietara iritsi zena). Eta Joxepak hitzeman omen zion, festa jartze aldera egun batean berekin probatu nahi bazuen, Erreterriara etorriko zela.

Bilintxek sorta honetan jaso zuen Hondarribian izandako gertaera hura.





Bertsolaria: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" (1831 – 1876 Donostia, Gipuzkoa)

Doinua: Egunaren izena

Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)

1 Aspaldian, Joxepa
famatua **zeunden**
gu berriz ikusteko
desiotan **geunden**
Hondarrabi aldian
aditzen **genduen**
dama bertsolari bat
nola **bazeguen**
zeinak Euskal Herrian
parerik **ez zuen**.

2 Egiak ote ziran
famaren hots **haiek**
bixitatu zindugun
zenbait **jakinzalek**
hamar edo hamabi
donostiarrek
haiekin batian zan
bizar haundi **harek**
izkribatzen dizkitzu
zuri bertso **hauek**.

3 Ni bertsolaria naiz
baina det **aditu**
ez nitzaizula zuri
hala **iruditu**
zuk horla pentsatzia
ez da zer **harritu**:
nere jakinduririk
ez nuen **argitu**
zergatikan ez nitzan
premian **arkitu**.

4 Baliteke irixtia
premia **horretara**
agindu zenidala
goguan det **bada**
prestaturikan nere
desiuetara
baldin dibertsio bat
nahi banuen **para**
etorriko zinala
Erreteriarra.

5 Egizu nahi zunian
dama, **etorrera**
zuregan utzitzen det
egunan **aukera**
ipintzen badidazu
horrelako **era**
aprobetxatu gabe
ez niteke **gera**
alkarrekin berriro
mintzatuko **gera**.

6 Arkitzen baldin banaiz
orduan **umorez**
proga emango dizut
lehenagoko **ordez**
beste inori baino
gustorago **doblez**
gero juzga dezagun
ezaguera **hobez**
ia bertsolaria
al naizen **edo ez**.





Ez dakigu Joxepak zertzuk esan ote zituen, Bilintxen sorta hau eskutan hartzean. Ezta inoiz elkar neurtzera iritsi ote ziren ere, Erreenterian.

Baina Bilintxen sorta erantzun gabe uztekoa ez zenez, Maialen Lujanbiok jarri zituen bertso hauek, Hondarribiko Joxeparen ahotik. “Bertsolaritzaren sekretuak” (2015) emankizunean jendaurreratu ziren.

Bertsolariak: Maialen Lujanbio Zugasti (1976 Hernani, Gipuzkoa)

Doinua: Sagutxo batzuekin

Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)

1 Bere bizar haundia
eta **antijua***
Hondarribira egin du
bixita **pijua***
pena du Joxepari
ez adarrik **jua**
berriz izan ez dezan
keja ta **ijua**
Bilintxi bertso hauek
jartzera **nijua**.

2 Galdera egin dezu
kalian ta **kaian**
dalako Joxepa hori
harrapatu **nahian**
baino Joxeparikan
ez izaki **zai han**
bertsua izaten da
noiznahi gure **mahaian**
baina ez erronkosuek*
nahi duten **garaian**.

3 Hondarribira etorri
zinana **erromes**
dama bertsolaririk
bazegon **edo ez**
lehen ez nizun nik ein da
orain lehengo **ordez**
proba hartuko dizut
gustoz ta **onorez**
baldin aurkitzen banaiz
ni ere **umorez**.

4 Mila zortzirehunetik
pasa **gabiltzala**
haundia da Bilintxen
bertsoen **itzala**
berak bihurtu du nik
hauek jar **nitzala**
nahi dunak Joxepanak
ikasi **ditzala**
geroak jakin dezan
ni're **banintzala**.



antijua = betaurreko
pijua = ausarta

erronkosuek = erronkariak





SEMEARI

Doinua: Seme ezarri bainauk

Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria: Fernando Aire Xalbador. 1976/2004.

Odolaren mintzoa. Auspoa. 164 or.



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976)
Urepele, Baxenabarre)

Xalbadorren semea, Mixel, Amerikara joana zen artzai; semeak gutuna idatzi zuen etxera, puska batean ez zela itzuliko esanaz. Xalbador aitak, penaturik, sorta honekin erantzun zion.

Xalbador aita bezala, Mixel (Xalbador II) ere bertsolaria izan zen.

Kantu hau ezagun egin da "Aire ahizpak" abeslarien ahotsean (Mixel zenaren alabak dira).

Horra etxeko hiru belaunaldi lotzen dituen sorta:

Fernando Aire Xalbador, Mixel Aire Xalbador II eta "Aire ahizpak".

- 1 Mixel, ezarri bainauk dudazko **trantzean** kantatzerat noakik, pena **bihotzean** esperantzaz beteak ginenak **artean** hire azken aldiko berriak **hartzean** hotzikara ilun bat sartu duk **etxean**.
- 2 Urtatsetako* karta ginian **lekuko** etxerako hintzala heldu den* **neguko** berri hau izan zian gu denen **gostuko** geroztik asmo horri egin diok **uko** ez ahal haut, gaixoa, betikotz **galduko**!
- 3 Diru eskasia duk eman **estakuru*** ekarriko ote dauk sekulan **sosegu?** Pausarik hartu gabe uda eta **negu** zer egiteko dituk horrenbertze **diru?** Guttiagorekila biziak gaituk **gu**.
- 4 Hemen hintzan denboran hi hintzan **lehena** diruaz gutienik axola **huena** amodioz eginik lanik **gogorre**na ama batek sor diron* ume **zintzoena** harrokaren gainean bizi **hindaikena**.



Urtatsetako = Urteberri eguneko
heldu den = datorren

estakuru = aitzakia
sor diron = sor zezakeen





- 5 Maite hituen behi, ardi ta **bildotsak** hemengo mendi eta dohain **baliosak*** etxeari loturik gaduzkaten **gauzak** zer irabazten dugun, gogoan har **ezak** hauen amodioa galtzen badauk **sosak***.
- 6 Hi oroitaraztea dukek **alferretan** etxea daukagula hire **beharretan** aunitz egin behar duk Amerika **hortan** hunek galtzen duena indarraren **faltan** ordaindu behar baduk dolar **paperretan**.
- 7 Baina ez nitek nahi, o seme **maitea** desafia dezakan kontraka **haizea** sortetxearen karga bortxarat* **hartzea** hobe baituk hi baino etxea **galtzea** nahiz tristeia izan gure **zahartzea**.
- 8 Tristeia litaikela ez diat **dudatzen** etxe amodioa ez baita **mugatzen** ikustea kafi* hau sasuz* **inguratzen** eta gure bazterrak bertzen **eskuratzen** gogoratzerat ere ez nauk **menturatzen***.
- 9 Entzutean etxeko agoni **ezkila*** bihotzaren bakea non aurki, non **bila**? Ganbarak hutsak eta sukalde **ixila** biziaren arbola betikotzat **hila** hori ikusi gabe lurperat **nadila**!
- 10 Baina, seme, nik hitan badiat **fedea** Kartsuki* hartzen baituk hik **eginbidea*** amodioz entzunik aitaren **galdea*** behingotzat hor utziz Amerika **aldea** bilatuko dukala etxeko **bidea**.
- 11 Semea, urrundurik sosaren **peskizan*** agertzen duk zer aita erromesa* **nizan** zintzoki jarraik hadi hi hire **bizitzan** ni baino aita hobe izaiteko **gisan** hire semeak ez dezan joaiterik **izan**.



dohain baliosak = ezaugarri
baliotsuak
sosak = xoxak, diruak
bortxarat = bortxaz, behartuta
kafi = habia
sasuz = sasiz
menturatzen = ausartzen

ezkila = hil kanpaia
Kartsuki = Gartsuki
eginbidea = betebeharra
galdea = eskea
peskizan = esperoan
erromesa = atzera-aurrera dabilena





URSUS TIBETANUS

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Neurria: Hamarreko handia (hg) / Bost puntuko handia (ip)



Aitor Sarasua Maritxalar
(1967 Aretxabaleta, Gipuzkoa
– 2018 Itsasu, Lapurdi)

Tibeteko hartza baten begiradatik idatzitako sorta, Himalaiako mendi-gailurrak konkistatzeko gizakien jarreraz edo “himalaismoaz”.

Kantua “Fauna txiki bat bertso berritan” diskoan atera zuten Jon eta Aitor Sarasua anaiek (1995 Elkar).

1 Gogoan daukat, ez du aspaldi
hartz bihurrian **lilura**
izerdi hotzez hurbiltzen ginen
buru ilun **lurruntsura**.
Hainbeste maite genuen tontor
sakratuaren **itxura**
hurbil ta urrun haizez gordea
begira beti **zerura**
gizonik inoiz iritsi ez zen
toki bakarra zen **hura**.

2 Kutizigune bihurtu ohi du
gizonak leku **ederra**.
Gure mendira ere sartu zen
azal zuri, begi **fierra***
konkistarako abila bezain
otoitzerako **alferra**
mendi magala bihurtuz bere
irrika-toki **ankerra**
sokaz ta burniz prantatu* zuen
gailurren kontrako **gerra**.



fierra = harro, hantuste

prantatu = plantatu, ezarri





3 Gailurrei gerra irabaztea
omen da marka **itzela**
bi txanponekin morroi harturik
hemengo gizon **zimela**
zeinek lehenago ta sarriago
horixe jolas **krudela**
bide hau hura baino zailago
badela eta **eztela**
dirua omen daukatelako
eurena balitz **bezela**.

4 Sokaz lotuta, burniz josia
utzi dute mendi **gaina**
hondra delako hitz bat omen da
jasotzen duten **ordaina**
gure hitzetan arrotzak dira
“heroe” eta “**azaina**”
hauen ekintzei zentzu izpirik
ez zaie ikusten **baina**
gure amorruek ez du balio
haien foto batek **haina**.

5 Beren bihotzen txikitasuna
agian zaie **mingarri**
ta sentsazio norgehiagokak
ditu honaino **ekarri**
gure mendira etorri dira
auskalo zeren **egarri**
misterioa kendu diote
eta ikurriñak **jarri**
noizbait mendia gurtu genuen
ezjakinon **lotsagarri**.






AMUNARI

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Neurria: Hamarreko handia (hg) / Bost puntuko handia (ip)



Julio Soto Ezkurdia
(1987 Iruñea, Nafarroa)

Zaintza lana eskertuz, hil den amonari.


- 1 Iruritarra zinen jaiotzez
familiar jateko **lain**.
Kristobalekin ezkondu zinen
Gorritiraino gainez **gain**.
Hamalau seme-alaben ama
etxeakoandre, **umezain**.
Bizi laurogeita hamabost urtez
begiak itxita **orain**.
Beti irrifar bat ezpainetan
Agapita **Barasoain**.
- 2 Etxetik irten aurretik beti
kezkatan, **pentsamentuan**
“Julio arroltze bat nahi al duzu?
Iñen datzut **momentuan**”
“Ezetx amuna” (etsitzen zuen
hirugarren **intentuan**)
“Ta pañueloa hartu al duzu?
Tori, eraman **eskuan**”.
Nonbait bi bihotz zenituen guk
bakarra dugun **lekuan**.
- 3 Beti xahartuta ikusi zaitut
beti aurpegi **ximela**
beti soineko ilun batekin
mantal azpian **sabela**
tokilla more bat bizkarrean
atzo, gaur, bihar **bezela**.
Jakín nekien lur honetatik
denak joaten **ginela**
baina batzutan sinesten nuen
zu betirako **zinela**.
- 4 Begiak biltzen nituen zure
aldameneko **ohatzean**
esnatzen zinen bi-hiru aldiz
nik buelta erdi **ohartzean**
komunera joan eta etorri
nigana **gerturatzean**
leihoa ireki, gaua usaindu,
lanpara argiz **atzean**.
Orain arnasa falta zait zure
ohatzera **begiratzean**.





5 Heriotza da beti heriotz
bere malko, bere **minen**
baina honek zer kendu didan ez
nuke esaten **jakinen**
bizitza ez zait aurrera lehen
bezalakoa **eginen**
amuna eta biloba baino
zerbait gehiago **baikinen**
zuk "seme" deitzen ninduzun eta
zu niretzat ama **zinen**.

6 Pazko, udara, urtezahar-berri
igandeetako **aintza**
jendez betetzen zen sukaldea
mahai inguruko **zaintza**
kafesnea ta galletak zure
bisitaroko **eskaintza**
familiako enborra zinen
maitakorra, **berdingaitza**
orain jakingo al dugu nola
mantendu zutik **zuhaitza**.





ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

Doinua: Amodioa gauza tristea

Neurria: Hamarreko handia (hg) / Bost puntuko handia (ip)

Testuaren iturria: Fernando Aire Xalbador. 2006.

Odolaren mintzoa. Auspoa. 99 or.



PHOTO DR

Fernando Aire Xalbador
(1920-1976
Urepele, Baxenabarre)

Ezinezko maitasunari.

- 1 Amodioa gauza tristea, bihotzen **higatzailea**
guziz enea bezala bada esperantzarik **gabea**.
Gizonarentzat hau baino malur* handiagorik **badea**?
Ikusten eta ezin eskura maitatzen duen **lorea**!
Hunela bizi baino aunitzez hobe litaik **hiltzea**!
- 2 O, Jainko ona, zendako bada egin nauzu hoin **maluros***
begien bixtan izar eder bat ezarri **dautazulakotz**
ikus orduko maite nuena nik ditudan indar **oroz**?
Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez **bihotz**...
Nehoz* ikusi izan ez banu hobeko nuke **ondikotz**!*
- 3 Üi ene maite ezin ukana*, zoin zaren **xarmegarria**!
Maite dut zure begitartea, maite zure boz **eztia**
halaber zure irri gozoa, zure izaite **guzia**
zuretzat baizik ez dut begirik, zare ene **iguzkia**
gau eta egun zuri pentsatzen deramat ene **bizia**.



malur = zoritxar
maluros = zoritxarreko

Nehoz = inoiz
ondikotz = zoritxarrez

ezin ukana = ezin
eskuratu dena



- 4 Martxoko hormak* galduko duen lore pollit **goiztiarra** ta eihartzerat* bortxatua den haizeak hautsi **abarra*** ene bihotza ez ditaiketa gauza horier **konpara?** Nehoiz enea ez da izanen maitatzen dutan **izarra** hortaz oroitzuz maiz etortzen zaut nigarra **begietara**.
- 5 Aitortzen dautzut, ene maitea, goiz aski **banakiela** etzintaizkela enea izan, bertze batentzat **zinela** bainan halere maitatu zaitut, ez bainezaken **bertzela** ene bihotza, bizi naizeno, izanen zaizu **fidela** zuretzat bizi ez banitaike, zuretzat hil **nadiela!**



hormak = izotzak
eihartzerat = ihartzera

abarra = adarra





NOLAKO MINA

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Neurria: Bost puntuko handia (ip) / Hamarreko handia (hg)



Joanes Etxebarria
(1984 Barkoxe, Xiberoa)

Gustatzen zaizun pertsona hori, juxtu, zure lagun minarekin irteten hasten denean
(Lurraren pean sar nindaiteke...).

- 1 Ahalke* gorriz jauntsi niz zeren uste ez nūan **bezala**
ikusi beitūt maite dūdana niganik hūrrūn **doala**
aski ez balitz, ene lagūn bat zaio jagoiti* **leiala**
batak bihotza erdiratū deit besteak moztū **hegala**
ez dakieia ni baztertzeak min emaiten **deitadala?** (bis)
- 2 Adiskidea nūana ez da haboro* ene **adiskide**
ata* etxetik eskola artino bien artean zonbat **bide...**
“Maitatzen nūan pertsona hartū deitadak ta kaka **hire!**”
Ez futboleant, ta ez bizian ez hiz haboro **taldekide**
ta espero dūdan bezala bada laster berexiko **zide.** (bis)
- 3 Ene bihotza ezarri dūanari ikasurte hontan **sūtan:**
“Amodiorik ez dūt nik haboro sekūla ezarriko **zūtan**
sekūla ez dūzū, orai jakinen nik zonbat xarma **badūtan**
eta ohartzen baldin bazira ikusten naūzūn **lekūtan**
nigar egiten ahalko dūzū beste norbaiten **eskūtan!**” (bis)
- 4 Ene tū* eta herrak* igorri ondolik hiru **kobletan**
malerusena* egia erran ni nizate **urteetan**
lagūn bat eta, maitea galtzez nahigabe triste **hontan**
būrūa apal egon beharko eskolan aire **hartzeetan***
ūken* artino lagūn berri bat ta maite bat **besoetan!** (bis)




Ahalke = lotsa
jagoiti = sekulako
haboro = gehiago
ata = alta, haatik

tū = listu
herrak = amorrak
malerusena =
zoritxarrekoena

aire hartzeetan = jolas-
ordueta
ūken = izan





Xabier Lete Bergaretxe
(1944 Oiartzun -
2010 Urnieta, Gipuzkoa)

IZARREN HAUTSA

Doinua: Izarren hautsa egun batean

Neurria: Neurri berezia. Kantua zortzi puntukoa da, lau errimekin.

Bertsotan hamar puntukoa bihurtu da, 3 errimekin.

Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria

Poema bakarraz, bi kantu ezagun

“Izarren hautsa” poema Xabier Letek argitaratu zuen “Bigarren poema liburua”n, 1974an.

1975ean Mikel Laboak kantu bihurtu zuen Leteren poema, “Ikimilikiliklik” ikuskizunean jendaurreratuz (1975- 1978).

Ostean, Xabier Letek bere poemaz kantu berria egin eta “Kantatzera noazu” diskoan jaso zuen (1976 Artezi).

1980an Mikel Laboak bere bertsioa “Lau / Bost” diskoan grabatu zuen (1980 Xoxoa).

Bertsotan Laboaren doinua baliatzen da, hamar puntuko bertsora egokituta, 3 errimekin.

Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen **bizigai**
hauts hartatikan uste gabean
noizpait ginaden gu **ernai***.
Eta horrela bizitzen **gera**
sortuz ta sortuz gure **aukera**
atsedenik hartu **gabe**:
lana eginaz goaz **aurrera**
kate horretan denok **batera**
gogorki loturik **gaude**.

Gizonak badu inguru latz bat
menperatzeko **premia**
burruka hortan bizi da eta
hori du bere **egia**.
Ekin ta ekin bilatzen **ditu**
saiatze hortan ezin **gelditu**
jakintza eta **argia**:
bide ilunak nekez **aurkitu**
lege berriak noizpait **erditu**
hortan jokatz **bizia**.



ernai = ernatu, hazitik sortu





Gizonen lana jakintza dugu
ezagutuz **aldatzea**
naturarekin bat izan eta
harremanetan **sartzea**.
Eta indarrak ongi **errotuz**
gure sustraiak lurrari **lotuz**
bertatikan **irautea**:
ezaren gudaz baietza **sortuz**
ukazioa legetzat **hartuz**
beti aurrera **joatea**.

Ez dadukanak ongi ohi daki
eukitzea zein den **ona**
bere premiak bete nahian
beti bizi da **gizona**.
Gu ere zerbait bagera **eta**
gauden tokitik hemendik **bertan**
saia gaitezen **ikusten**:
amets eroak baztertuz **bertan**
sasi zikinak behingoz **erreta**
bide on bat **aukeratzen**.

Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira **besteak**
burruka hortan iraungo duten
zuhaitz ardaska **gazteak**.
Beren aukeren jabe **eraikiz**
ta erortzean berriro **jaikiz**
ibiltzen joanen **direnak**:
Gertakizunen indar ta **argiz**
gure ametsa arrazoi **garbiz**
egiztatuko **dutenak**.





ZALDI BATEN BIZITZA edo ZALDI ZURIYARENA

Doinua: Horra sei bertso kale

Neurria: Neurri berezia. Bederatzi puntukoa

Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.

Bilintx - bertsoak eta bizitza. Auspoa. 141 or.



Indalezio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876
Donostia, Gipuzkoa)

1860 urte inguruan, Donostiako Joxe Mari kale garbitzaileak zaldi zuri bat erabiltzen zuen gurdi garraio; zaldiari ez zioten jateko askorik emango eta argala zegoen oso, dena hezur eta azal. Bilintxek umorezko sorta hau jarri zion eta erabat haserretu zen Donostiako garbiketaz arduratzen zen Gros familia; denbora askoan ez omen zioten Bilintxi hitzik egin. Joxe Mari euren morroia zen. Gerora, sorta hau Xabier Leteren ahotsean ezagutu dugu, "200 urtez bertsotan" CD bildumari esker (2001 Elkarlanean).

1 Horra sei bertso kale
garbitzaileari
zeina bere izenez
dan **Joxe Mari**
erreza lezazkike
hiru **abemari***
indarra etortzeko
zaldi **zuriari**
animali **hori**
urriki* zait **neri**
falta du **ugari**
egoteko **guri**
kartoiakin egina
dala **dirudi**.

2 Goizero behar dio
eraso **lanari**
zikinak bildu arte
herri **danari**
berriz ere hobeto
bizi ez **danari**
nabarbenduko zaizka
hezurrak **ugari**
ez naiz txantxaz **ari**
eta, **Joxe Mari**
zaldi **gaxuari**
nahi haina **janari**
eman zaiozu, jartzen
ote dan **lodi**.

3 Dago eskeletuen
itsura **harturik**
dina* jan ezak dauka
horla **galdurik**
nola ez da egongo
oso **argaldurik**
edukitzen badute
askotan **baraurik**?
Zaldia horri **nik**
ez det **esperorik**
ezer **ikusterik**
hezurrak **besterik**
ez du behintzat izango
odol-kolperik.



abemari = otoitz izena, "Ave María"
hasten dena

urriki = erruki
dina = berdintzeko adina





4 Lana sobra du baina
janaria **falta**
urrikigarria da
dakarren **planta**
gaxuak ez lezake
luzaro **aguanta**
flakiarekin ezin
mugitu du **hanka**
pentsu gutxi jan ta
kalian **jiraka**
gaizki bizi **da ta**
indarrik ez **daka**
ezin karriatu du
karro bat **kraka***.

5 Munduan ez liteke
zaldirik **aurkitu**
duenik horrek haina
pena **sufritu**
bihotzik gogorrena
lezake **kupitu***
ez du zahartzera txarra
gaxuak **atxitu***
pausua **nagitu**
ezin da **mugitu**
gutxienaz **ditu**
zazpi **espiritu**
bestela bizirikan
ezin **segitu**.

6 Gizarajuaz danak
pena har **zazute**
baldin bihotz biguinak
badituzute
hasi zan egunetik
eta orain **arte**
zerbitzua egin du
herrian **bastante**
igande ta **aste**
jaiarekin **nahaste**
makina bat **urte**
pasa **dizkitzute**
orain erretirua
merezi **luke**.

ZALDIAREN HERIOTZA

Indarra zeukan arte
zikina **karraio***
eragiten zioten
makina bat **saio**.
Bainan minez jarri da
indarra juan **zaio**!
Nekearen pagua
balaz eman **zaio**!

OBIZDEA*

Azkenak hemen daude
zaldi argal **baten**
zeinak ez zuen inoiz
pentsu on bat **jaten**
gelditu zaizkan mami
puskak **eramaten**
beleak lan askorik
apenas **daukaten**.

R. I. P. Amen.



kraka = zikin
kupitu = gupidaz jarri, errukitu
atxitu = atzitu, harrapatu

karraio = garraio
OBIZDEA = epitafioa, hilartitza





Juan Frantzisko Petriarena
Xenpelar (1835-1869)
Erreteria, Gipuzkoa)

BETROIARENA

Doinua: Betroiarena A

Neurria: Neurri berezia. Bederatzi puntukoa

Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1969. Xenpelar bertsolaria.

Auspoa. 293

Erreterian Xenpelar bertsolariaren bizilaguna zen Fermin Errazkin itzaina (idiekin ibiltzen zena). Ostegun batez, feri-egunez, joan da Hernaniko azokara Fermin eta "betroia" edo behia erosi dio Inazio delako bati, 19 ezkutu ordainduta. Behi ona omen zen erosi zuena, baina Fermin tabernan sartzean, behia trukatu egin zioten eta xaxtar bat jarri. Betroi trukatu horrekin eliz ataritik pasatzean apaizek barre egin zioten: halakoxea zen azienda hura!

Gertaera kontatzeko bertso sorta umoretsu hau jarri zuen Xenpelarrek.

- 1 Bertso berriak jartzen
orain naiz **abiyan**
predikatzer a nua
Euskal **Herriyan**
betroi bat hartu nuen
Hernanin **feriyan**
galantzia egingo
zuela **agiyan**
tristura **begiyan**
beti **auleriyan**
ez haren **premiyan**
nere **fameliyan**
Xenpelarrek dakizki
Erreterian.
- 2 Ostegun joan danian
hamabost **Hernanin**
betroiaren tratua
genduen **egin**
Inazio saltzaile
erostuna **Fermin**
hemeretzi ezkutu
genion **eragin**
sabelian du **min**
inork ase **ezin**
artoari **muzin***
ez du nahi **edozin**
atzetik behar ditu
zazpi **medezin***
- 3 Informe txarrak dira
horrentzat **auzotik**:
espalda* ateria
urgun* **besotik**
eztula ta antsia
ukuilu-**zokotik**
desterratuko nuke
nik nere **bototik**
amarra* **lepotik**
grilluak* **orpotik**
makilaz **ondotik**
jotzen det **gogotik**
ez zaio ajolarik
ezerengatik.



muzin = baztertu, uko egin
medezin = botika
espalda = bizkarra

urgun = herren
amarra = lepotik lotzeko soka
grilluak = orpotik lotzeko burnizko uztaiak





- 4 Oraindik gaztia da:
hogeita sei **urte**
ernari* omen ditu
bost **hilabete**
nik ez diot igertzen
hala esan **dute**
gezurra baldin bada
engainatu **naute**
haragia **aparte**
hezurretan **torpe**
zainak dauzki **fuerte**
zeinek nahi du **merke**?
Zikiro* baten truke
emango **nuke**.
- 5 Kara* iguala du
aurrian ta **atzian**
basurdia dirudi
zutik **jartzian**
konsuelo bat daukat
nere **bihotzian**:
bizirikan gelditzen
bada **hilbeltzian***
hori **umatzian***
esnia **etxian**
gazta **abatsian***
gazura* **arratsian**
belarrak gizenduko
du **maiatzian**.
- 6 Begi bat itsua du
adar biak **motzak**
kriseilua* dirudi
haren **kokotzak**
ikaratutzen gaitu
eztularen **hotsak**
burlaka hasi zaizka
elizatik **hontzak***
sano dauzka **hortzak**
hagina **zorrotzak**
tristura **bihotzak**
dantzan dabil **hotzak**
ez dio onik egin
leku **arrotzak**.
- 7 Borroka dabilela
juan zaizka **adarrak**
ezin sujetaturik
bere **indarrak**
lurrera botatzen du
euliaren **kargak**
talentu onak dauzka
nere betroi **zaharrrak**
jendiaren **farrrak**
ez dirade **txarrrak**
ganadu **elbarrak***
juntura **iharrrak**
burruntzia* dirudi
haren **bizkarrrak**.
- 8 Burua jarri zaio
lurrera **begira**
belarriak zintzilik
ai zer **segira**!
Albaitero guziak
ikaratzen **dira**
zeinek sendatuko du
holako **herida***?
Bajatzan ari da
hirutatik **bira**
hau nere **perdira***
nork nahi du **erdira**?
Baina ez det eman nahi
Euskal Herrira.




ernari = umedun
Zikiro = ahari zikiratua,
irendua, kastratua
Kara = Aurpegi
hilbeltzian = urtarrilan
umatzian = ernari, umedun
gelditzean

abatsian = jezteko ontzian
gazura = gazta
egiterakoan esne-mamitik
bereizten den ura edo
sueroa
kriseilua = argi ontzia

hontzak = elizako apaizei
deitu die hontzak
elbarrak = elbarriak
burruntzia = haragia
erretzeko burni ziria
herida = zauria
perdira = galera





Jon Lopategi Lauzirika
(1934 - 2019 Muxika, Bizkaia)

ERROPA ZAHAR HOIEKIN

Doinua: Gaztalondo handian

Neurria: Neurri berezia. Bederatzi puntukoa

1986ko Txapelketa Nagusian gai hauxe jarri zioten Lopategiri: “Zahartutako zeure arropak zaborretara bota dituzu; eta hara non ikusten duzun beste gizon bat zuk botatako arropak jasotzen”.

Jon Lopategik 1989an jantzi zuen Euskal Herriko txapela. 1984tik aurrera bertsolaritza irakasle lanean aritu zen. Ikastolen Elkarteaz, Bizkaian haur eta gazteak zaletzen eta bertsolariak trebatzen egin zuen lana bideurratzailea izan zen.

Hiru bertso hauekin Kupela taldeak trikiti pieza kaleratu zuen “Gailurrak ikutuz” diskoan (2012 Elkar).

1 Erropa zahar hoiekin
etsian **nengoen**
beti jantzi ohi naiz
ahal denik **ondoan**
akaso bota ditut
behar zen baino **lehen**
baina ondorioa
horra hor **nabarmen**
triste nago **zeren**
aitona zahar **horren**
jokoa gaur **zer den**
ikusi **ondoren**
miseria gehiegi
daukagu **hemen**. (bis)

2 Triste ikusten zaitut
aitona **izanik**
gaizki hartu zaituzte
egia **esanik**
zer eman nezake nik
zuretzat **nigandik?**
Ez nuen uste kasu
hori inun **zanik**
har zazu **dohainik**
ez eman **ordainik**
bihotza **jadanik**
lehertua daukat **nik**
erropa gehiago ere
badut **oraindak**. (bis)

3 Besteok sarri juergan
egun eta **gaba**
eta zuretzat berriz
hainbeste **traba**.
Nere etxe ondoan
jo duzu **aldaba***
hau da nere bihotzak
dakarren **algara**
ta hori non, **hara**
nere **abiada**
justizirik **bada**
zu hola nola **laga?**
Nere traje onenez
jantziko **zara**. (bis)



aldaba = atea jotzeko burnizko pieza






MENDIAN GORA HARITZA

Doinua: Mendian gora haritza

Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa

Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria.



Xabier Amuriza
Zarraonaindia
(1941 Etxano, Bizkaia)

Bizitzari jarritako sorta.

Kantua, doinu malenkoniatsuan, Imanol abeslariak plazaratu zuen “Iratze okre geldiak” diskoan (1982 IZ). Mikel Urdangarinek doinuari esperantza eta bizipozaren indarra eman zion “Margolaria” CDan (2017 Elkar).

1 Mendian gora **haritza**
ahuntzak haitzean **dabiltza**
itsasoaren arimak dakar
ur gainean **bitsa***.
Kantatu nahi dut **bizitza**
usteltzen ez bazait **hitza**
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa **banintza**.

2 Euskal Herriko **tristura**
soineko beltzen **joskura**
txori negartiz bete da eta
umorez **hustu da**.
Emaidazue **freskura**
ura eskutik **eskura**
izarren salda urdina edanda
bizi naiz **gustura**.

3 Euskal Herriko **poeta**
kanposantuko **tronpeta**
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari **topeka***.
Argitu ezak **kopeta**
penak euretzat **gordeta**
goizero sortuz bizitza ere
hortxe **zegok eta**.

4 Mundua ez da beti **jai**
inoiz tristea ere **bai**
baina badira mila motibo
kantatzeko **alai**.
Bestela datozen **penai**
ez diet surik bota **nahi**
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo **lasai**.



bitsa = aparra

topeka = kolpeka (ahariak aritzen dira topeka, talkan)






BI HAUR, ETXAHUNEN HIL HOBIA

Doinua: XILABArA jina nauzu

Neurria: Kantua kopla edo bi puntukoa da.

Bertsotan neurri berezi bihurtu da, sei punturekin.



Roger Idiart (1931-2009)
Azkaine, Lapurdi)

Roger Idiarten kopla hauek, Etxahun Iruri bertsolariari eskainitako pastoralean eman ziren, Jean Etxartek sortutako aireaz; CDan ere argitaratu zen (2001 Agorila).

Pierre Bordazarre “Etxahun Iruri” (1908 Iruri, Zuberoa – 1979 Pau, Frantzia), alor anitzetan izan zen sortzaile: bertsolaria, kantu eta pastoral egilea, idazlea, musikaria, txirularia. Ogibidez laboraria eta artzaina izan zen. Bertsotan Louis Ligetx koblakariarekin ikasi zuen eta harekin jarduten zuen deman; Xalbadorrekin eta Mattinekin ere egin zituen saioak. Bederatzi pastoral idatzi zituen, tartean Iparragirreri eta Etxahun Barkoxe koblakariari eskainitakoak. Solfeorik gabe berak sortutako ehundik gora kantuetan, ezagunenak dira “Lo adi aingüria”, “Agur Xiberua”, “Goizian argi hastian” eta “Oi ama Eskual Herria”.

- 1 Etxahun, horra nitzaizü
agur baten **egitera**
pastoraletan bezala
Jinkoaren **othoiztera**.
- 2 Bihotz-bihotzetik nüzü
zotükatü* **zuregana**.
Lili hoiek erran beze*
nik erraiten ez **düdana**.
- 3 Nik ere nahi nikezü
zuretako zerbait **egin**
horra zergatik den heben*
ürzo eijer* hau **enekin**.
- 4 Etxahunen mezülari
ürzo xügün*, **abilua***.
Gure ametsen gidari
harro ezak **Xiberua**!



zotükatü = presarekin etorri
erran beze = esan bezate
heben = hemen

ürzo eijer = uxo eder
xügün = polita
abilua = abila

